# Bestelako Xedapenak

## KULTURA SAILA

### 5289

AGINDUA, 2010eko urriaren 6koa, Kulturako sailburuarena, Asteasun (Gipuzkoa) den Idarreta baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez Asteasun den Idarreta baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hori 2010eko abuztuaren 13ko EHAAn (155. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Asteasun (Gipuzkoa) den Idarreta baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

***Bigarrena***.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 5289

ORDEN de 6 de octubre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Idarreta, sito en Asteasu (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 1,0.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Caserío Idarreta, sito en Asteasu (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 26 de mayo de 2010, publicada en BOPV n.º 155, de 13 de agosto, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

***Primero***.– Inscribir el Caserío Idarreta, sito en Asteasu (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

***Segundo***.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden, a los efectos previstos en la Ley del Patrimonio Cultural Vasco.

***Hirugarrena***.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

***Laugarrena***.– Asteasuko Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

***Bosgarrena***.– Espedienteko interesdunei, Asteasuko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari agindu hau jakinaraztea.

***Seigarrena***.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

***Bigarrena***.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kulturako sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 6a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## I. ERANSKINA

### MUGAKETA

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Mendebaldera begira, baserriaren mendebaldeko fatxadarekiko 30 metrora trazatutako lerroa, alde horretatik doan bide publiko bateraino, eta, handik aurrera, bide publiko horren ertzik hurbilena.

***Tercero***.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, según lo establecido en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

***Cuarto***.– Instar al Ayuntamiento de Asteasu para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

***Quinto***.– Notificar la presente Orden a los interesados, al Ayuntamiento de Asteasu, a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Sexto***.– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## ANEXO I

### DELIMITACIÓN

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Oeste una línea trazada a 30 metros de distancia de la fachada Oeste del caserío hasta su encuentro con el camino público que discurre por ese lado y a partir de ahí el borde más cercano de ese camino público.

Hegoaldera begira, baserriaren hegoaldeko fatxadarekiko 30 metrora trazatutako lerroa.

Ekialdera begira, baserriaren ekialdeko fatxadarekiko lerro paraleloa, fatxada horrekiko 30 metrora trazatua.

Eta, azkenik, iparraldera begira, baserriaren iparraldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, fatxada horrekiko 50 metrora trazatua, mendebaldeko aldean doan bide publikoaren ertzik hurbilenean amaitzen duena.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatutako mugaketa Idarreta baserriko ingurumariko ingurumen- eta ikuste-balioak babestu beharragatik justifikatzen da. Baserria Asteasuko Upazan auzoan kokatzen da, malda txikiko muino batean. Ingurunearen mugaketak –beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko– baserriaren inguruko lurren eta eraikinerako sarbidearen babesa dakar berekin, betiere, baserriaren bereizgarritasunak kontserbatze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

Al Sur una línea trazada a 30 metros de distancia de la fachada Sur del caserío.

Al Este una línea paralela a la fachada Este del caserío trazada a 30 metros de distancia.

Y, finalmente, al Norte, una línea paralela a la fachada Norte del caserío trazada a 50 metros de distancia, que termina en el borde más cercano del camino público que discurre por el lado Oeste.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Idarreta situado en una loma de suave pendiente del Upazan bailara de Asteasu. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.


ESKALA / ESCALA
30 15 0 30 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
IDARRETA
BASERRIAREN MUGAKETA
Lurraldea / Territorio:
GIPUZKOA
Data / Fecha:
12/05/2010
Udalerria / Municipio:
ASTEASU
Eskala / Escala:
1:2.000

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Familia bakarreko baserria, planta angeluzuzenekoa, honako egitura duena: beheko solairua, lehenengo solairua eta ganbara. Bi isuriko estalkia dauka, naba-teilekin egina, gailurra fatxada nagusiarekiko elkarzut dagoela, eta fatxada hegoalderantz orientatua. Hareharriz egindako harlangaitzezko perimetro-paretak, eta eskantzuak, harlanduzko kareharriz eginak. Mendebaldeko horma-atalak hareharriz egindako harlanduzko murruak ditu.

Fatxada nagusia porlanez errebokatuta dago eta konposizio erregularra dauka. Lehenengo solairuaren parean, lau leiho ditu, karez zuritutako ertzekin, eta horien gainean beste lau leiho txikiago, ganbaran. Beheko solairuan, ikusgai zirkulu erdiko hiru arku, itsututa. Orobat, ekialdeko fatxadak ere beste arku itsutu bat dauka, aurrekoen antzekoa. Eraikineko fatxada nagusian kokatutako ataripe zahar baterako sarbidea ematen zuten arku horiek. Ekialdeko fatxadan, beheko zatian, metalezko portalea dago, ate labainkorra duena. Lehenengo solairuaren parean, habe etzan bat erakusten du, eta haren gainean alde horretan dituen egurrezko bilbadurak bermatzen dira, hutsarteak harlangaitz-lanez mukuru daudela. Beheko estalkia irekita dago, ganbara aireztatzen laguntzeko. Belarra biltzeko silo bat dauka fatxadari atxikita.

Iparraldeko fatxadak, atzealdekoak, erantsitako eraikintxo bat dauka, gainerako eraikinaren antzeko murruatalekin, eta hantxe lau saietera txiki irekitzen dira. Erantsitako eraikin horren estalkia, hori ere naba-teilez egina, isurialde bakar batekoa da, eta iparraldeko fatxadan dauka euskarri. Mendebaldeko fatxadak, beheko plantan, sarbideko portale bat dauka, harlanduz inguratutako leihoburu handi batekin; eta, lehenengo solairuaren parean, leiho-bao bi, harlanduz inguratuak, bai eta harriz eta lurrez egindako malda baten bitartez ganbararako sarbidea ematen duen portale bat ere.

Atal bateko zortzi zutoik osatzen dute eraikin honen barruko egitura, eta zutoi horiek estalkiraino heltzen diren harrizko oinarrietan edo jarlekuetan dute euskarri. Lehenengo solairuko eta ganbarako forjatuak sendotzen dituzten besoen eta habeen bidez lotzen dira zutoiok. Ganbarak urkilak ditu eta haien gainean baserriko teilatuari eusten dioten uhalak bermatzen dira. Teilatua gapirio luzeek, latorrizko lanek eta teilek osatzen dute. Atal bateko zortzi zutoi horietatik bi bikoitzak dira, eta baserri honek dituen garai gotikoko dolarearen berniei dagokie.

Idarreta oinetxe garrantzitsua da, Aiztondo harana jendeztatu zuena. Gaur egungo eraikina XVI. mendearen erdialdeko Gipuzkoako dolare-baserriaren eredu klasikokoa da. XVII. mendearen erdialdean zabaldu zen, hegoaldean habearte bat jarrita, lau arkuko por-

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

Caserío unifamiliar de planta rectangular estructurado en planta baja, primera y desván. Cubierta a dos aguas en teja canal, con cumbrera perpendicular a la fachada principal de orientación S. Muros perimetrales de mampostería de piedra arenisca y esquinales de piedra sillar caliza. El paño de la pared O presenta muros de sillar de piedra arenisca.

La fachada principal se halla revocada de cemento y es de composición regular. A la altura de la primera planta posee cuatro ventanas con reborde encalado y sobre éstas otras cuatro más pequeñas en el desván. En la planta baja son visibles tres arcos de medio punto que están cegados. Asimismo, la fachada E posee otro arco cegado, similar a los anteriores. Estos arcos daban acceso a un antiguo soportal situado en la fachada principal del edificio. La fachada E presenta en la parte baja un portalón metálico con puerta corrediza. A la altura de la primera planta muestra una viga durmiente sobre la que se apoyan los entramados de madera parciales que posee por este lado, estando los huecos cuajados de mampostería. El bajo cubierta se halla abierto para facilitar la aireación del desván. Adosado a la fachada posee un silo para almacenar heno.

La fachada N, trasera, presenta un anejo con paños de muros similares al resto del edificio, en donde se abren cuatro pequeñas saeteras. La cubierta de este anejo, también de teja canal, es de un solo faldón que se apoya en la fachada N. La fachada O presenta en la planta baja un portalón de acceso con un gran dintel recercado de sillar, y a la altura de la primera planta dos huecos de ventana recercados de sillar, así como un portalón de acceso al desván a través de una rampa de piedra y tierra.

La estructura interior de este edificio lo forman ocho postes enterizos que se apoyan en bases o poyos de piedra que alcanzan la cubierta. Estos postes se unen con vigas y tornapuntas que refuerzan los forjados de la primera planta y el desván. Éste último presenta horquillas sobre las que se apoyan las correas que sostienen la techumbre del caserío, formada por largos cabrios, enlatado y las tejas. De los ocho postes enterizos dos son dobles y corresponden a sendas bernias de lagar de época gótica que posee este caserío.

Idarreta es una importante casa solar pobladora del valle de Aiztondo. El actual edificio corresponde al modelo clásico de caserío lagar guipuzcoano de mediados del siglo XVI. Fue ampliado a fines del siglo XVII dotándole de una crujía en el lado S con

tikoa duena. Garai berean berregin zuten, eta altuera gehitu zioten, alderantziz jarritako arbolazko urkila naturalak jarrita, gaur egun estalkiaren armadura jasaten dutenak.

un gran pórtico de cuatro arcos. Fue rehecha en la misma época la cubierta dotándole de más altura mediante horquillas naturales de árbol en posición invertida, que hoy soportan la armadura de la cubierta.